



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Goi Eskola
Politeknikoa**

Izen emate- onarpen prozesuaren jarraibideak – IKASLE BERRIAK

2025-26 ikasturteko ikasle berrientzat

GRADUKO IKASKETAK



Aurkibidea

A. Jarraibide orokorrak	2
A.1. Izen ematea: Epea	2
A.1.1 Datu pertsonalak	2
A.1.2 Datu akademikoak	2
A.1.3 Lan esperientzia	2
A.1.4 Ikasketak hautatzea	2
A.1.5. Dokumentuak eranstea	3
A.1.6. Inskripzioa gordetzea	3
A.2. Eskaeraren egoera	3
A.3. Plaza erreserba	4
A.5. Ikasgaiak aitortzea	5
A.6. Bekabide	5
B. Onarpen-probari buruzko informazioa	6
B.1. Onarpen Probarako deialdia	6
B.2. Onarpen-probaren edukia	6
C. Hautaketa-prozesua	7
C.1. Onarpen baldintzatua, plaza erreserbatzeko eskubidearekin	7
C.2. Behin behineko notak aurkeztea	7
C.3. Onarpena	8
D. Matrikulazioa	9
E. Informazioa ekonomikoa	9
E.1 Zenbatekoa	9
E.2 Ordaintzeko moduak	10
E.3 Matrikulan atzera egitea eta ikasketetan baja ematea	10
E.4 MGEPEko bazkide erabiltzailearen izaera	10
F. Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia (BIN)-en ostatu	11
G. Eranskinak	12
G.1 ERANSKINA I: PLAZA ERRESERBATI UKO EGITEKO ESKAERA	13
G.2 ERANSKINA II: IRAKASGAIK ONARTZEKO ETA-EDO BALIOZKOTZEKO ESKAERA	14
G.3 ERANSKINA III: MATRIKULARI UKO EGITEKO ESKAERA	15
G.4 ERANSKINA IV: BAJA ESKAERA	16

A. Jarraibide orokorrak

A.1. Izen ematea: Epea

	Noiztik	Noiz arte
Epe arrunta	Azaroak 4	Apirilak 3
Epe berezia*	Apirilak 29	Irailak1

**Aparteko epea plaza hutsak dituzten titulazioetan bakarrik irekiko da.*

- Online bakarrik onartuko dira eskaerak. Horretarako, sartu <http://www.mondragon.edu/inskripzioak> atalean eta erregistroa egin.
- Izen ematea egiteak berekin dakar hautagaiak bertan jasotako datu guztiak eta erantsitako dokumentazioa egiazkoak direla adieraztea eta onartzea. Daturen bat faltsutzen bada matrikula baliogabetu egingo da, inskripzioa onartua izanez gero.
- Izen-emate datak onarpen-proba egiteko deialdia baldintzatuko du, baita eskaeraren ebazpenaren data, plazaren erreserbaren ordainketa eta abar ere.

A.1.1 Datu pertsonalak

- Datu pertsonalak adierazi beharko dituzu, identifikazio-agirian agertzen denaren arabera (NAN/AIZ/Pasaporte).
- Ziurtatu adierazitako helbide elektronikoa zuzena dela, prozesu guztian erabiliko dugun komunikazio bide nagusia izango baita.

A.1.2 Datu akademikoak

- Adierazi lortutako maila akademiko handieneko alde aurreko ikasketak eta eskatutako unibertsitate-ikasketak egiteko aukera ematen dutenak.

Batxilergoa

Goi-mailako Heziketa Zikloa edo baliokidea

Gradua, Masterra, Ingeniaritza, Lizentziatura, Arkitektura edo antzekoak

Ing. Teknikoa, Diplomatura, Arkitektura Teknikoa edo antzekoak

25 urtetik gorakoak, sarrera-proba gaindituta dutenak

40 urtetik gorakoak, sarrera-proba gaindituta dutenak

A.1.3 Lan esperientzia

- Hautagaiak lan-esperientzia duela ulertuko da lan-kontratu baten esparruan garatzen bada. Zentzu horretan, hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen baten arabera araututako kanpoko praktika akademikoak ez dira lan-esperientziatzat hartzen.

A.1.4 Ikasketak hautatzea

- Izen emate bakarra egin behar duzu. Bi ikasketatan inskribatzeko aukera duzu, lehentasunaren arabera, baina ez da nahitaezkoa aukera guztiak gehitzea; egin ezazu soilik ikasketa horiek egiteko benetako interesa baduzu.

- **Ikasketak aldatzea**
Inskripzioko epe arruntean (azaroaren 4tik apirilaren 3ra), lehentasun-ordena aldatu edo ikasketa berriak gehitu ahal izango dituzu, goian adierazitako mugarekin.

A.1.5. Dokumentuak eranstea

- Inskripzioa balidatzeko, zure identifikazio-agiria erantsi beharko duzu, indarrean dagoena (NANa, Espainiako nazionalitatea baduzu; eta pasaporte, AIZa edo nortasun-zedula atzeritarra bazara).
- Aurkeztutako dokumentazioa originala ez denez, zure erantzukizuna izango da informazioaren egiazkotasuna bermatzea.
- Dokumentuek gutxieneko kalitatea izan behar dute, osorik egon behar dute eta irakurtzeko modukoak izan behar dute. Dokumentu bat jaso ondoren adierazitako baldintzak betetzen ez dituela uste bada, onarpena.ing@mondragon.edu helbidetik berriro eransteko eskatu ahal izango dizute. Hala badagokio, **dokumentu berria erantsi arte, inskripzioa ez da baliozkoa izango.**

A.1.6. Inskripzioa gordetzea

- Inskripzioa gordetzean, helbide elektronikoan emaila jasoko duzu, emandako datu eta egin duzun ikasketen aukeraketaren laburpena azalduz.
- SPAM karpeta berrikustea gomendatzen dizugu; izan ere, Mondragon Unibertsitatetik bidal daitezkeen mezu elektroniko instituzionalek eta jakinarazpen kolektiboek SPAM tratamendua, nahi ez den postarena edo publizitate-sustapenarena jaso dezakete.
- Izen ematea formalizatze hutsak ez dakar zure aldetik inolako konpromisorik matrikula ofizialari dagokionez, eta ez dizu eskubiderik edo lehentasunik ematen ikasketetan.

A.2. Eskaeraren egoera

- Ondorengo estekan une oro kontsultatu ahal izango duzu zure izen ematea zein egoeratan dagoen: <http://www.mondragon.edu/inskripzioak>
- Inskripzioan adierazitako aukera bakoitzaren egoera honako hauetako bat izango da:

Inskripzioa

- ✓ **Izen-emate eskaera: Aurkeztutako eskaera, izapidetzeko zain.**
- ✓ **Informazio zain dagoen izen ematea:** Eskaera hori ez da osatu. Beharrezko dokumentazioa (NAN/AIZ/Pasaporte) erantsi ez delako edo erantsitakoa baliozkoa ez delako.
- ✓ **Izen-ematea onartua:** Izapidetzeko onartu da, eta onarpen-proba esleitu zain dago.

Proba espezifikokoak

- ✓ **Izen ematea esleitutako proba espezifikoarekin.** Onarpen-proba egiteko data bat esleitu dizugu. Proba egin ondoren zure inskripzioaren egoera honakoa izango da:
- ✓ **Proba eginda:** Proba egin duzu. Ikaslearen atarira dokumentazio hau igo behar duzu: Batxilergoko 1. eta 2. mailan (edo atzerriko baliokidea), edo goi-mailako prestakuntza-zikloko 1. mailan, lortutako kalifikazioak eta ateratako batez besteko nota aritmetikoa egiaztatzen duen ziurtagiria.

Aurre onarpena

- ✓ **Hautaketa-prozesuan:** Ikaslearen atarian, Batxilergoko 1. eta 2. mailetan ordura arte (edo atzerrian baliokidea) edo GMHZko 1. mailan lortutako kalifikazioen batez besteko nota aritmetikoa duen ziurtagiria eransteko moduan zaude.
- ✓ **Plaza erreserbatzeko aukera duen hautagaia:** Zure eskaerak ebaluazio positiboa lortu du, eta plaza erreserbatzeko aukera emango zaizu.
- ✓ **Plaza erreserbatuta duen hautagaia.** Zure eskaerak ebaluazio positiboa lortu du, eta plaza erreserbaren ordainketa egin duzu.
- ✓ **Erreserban:** Ez zaizu plaza erreserbatzeko aukerarik eman, baina zure eskaeraren balorazioa oraindik ez da behin betikoa. Prozesuaren ondorengo faseetan hartuko da kontuan.

Onarpena

- ✓ **Onartutako hautagaia:** Onartuta zaude, eta matrikula egiteko prest.
- ✓ **Onartu ez den hautagaia:** Ez zara onartua izan.
- ✓ **Hautagaia erreserba egoeran.** Ez zara lehen txandan onartua izan, baina zure hautagaitza kontuan hartuko da prozesuaren ondorengo faseetan.

A.3. Plaza erreserba

- **Plaza erreserba egiteko epea: apirilaren 30etik maiatzaren 7ra.**
- Titulazio bakoitzean eskainitako plazen kopurua mugatua denez, Mondragon Unibertsitateak plaza erreserbatzeko sistema ezarri du prozesuaren faseren batean.
- Plaza erreserbatzeko sistema honek plaza bermatzen dizu "Plaza erreserbatzeko aukera duen hautagaia" gisa agertzen zaren ikasketak egiteko. Plaza erreserba hori burutzeko, dagokion epeko baldintzak betetzeaz gain, diru-sarrera bat egin beharko duzu matrikulatzen zarenean ordaindu beharreko zenbatekotik murriztuko dena. Erreserba horren zenbatekoa 700,00 eurokoa izango da.
- Izen emate eskaerari aldeko ebazpena eman ondoren, **lehenengo aukerako ikasgaietan** plaza erreserbatzeko jarraitu behar duzun prozedurari buruzko informazio zehatza bidaliko zaizu. **Adierazitako epean plaza erreserbatzen ez baduzu, hasitako onarpen-prozesuan borondatez atzera egin duzula ulertuko da.**
- Plaza hutsak dituzten ikasketetan bigarren aukerakoetan plaza erreserbatu ahal izango da **Maiatzaren 12tik** aurrera, beti ere ez bada aurretik plaza erreserbarik egin lehen aukerako ikasketan.
- Plaza erreserbatu ondoren, interesduna Mondragon Unibertsitateko beste ikasketa batzuetan onartzen badute, ordaindutako zenbatekoa ikasketa berrietan zenbatuko da, eta aldea ordaindu beharko du kasketa horietan kopurua handiagoa bada. Txikiagoa bada, soberan ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko eta ikasketetako matrikularen konturako aurrerakintzat hartuko da.
- Mondragon Unibertsitateak kasu hauetan bakarrik itzuliko du plaza erreserbaren zenbatekoa:
 1. Hautagaiak espresuki idatziz jakinarazi beharko du plaza erreserbaren kontratu-harremanean atzera egiteko eskubidea gauzatu nahi duela, plaza erreserba ordaindu eta hamalau egun naturaleko epean, arrazoia adierazi gabe eta inolako kosturik izan gabe, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Babeserako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikuluan oinarrituta.
 2. Hautagaiak ez baditu gaingitu ikasketetan sartzeko ezarritako lege baldintzak. Hautagaiak berariaz eskatu ondoren egingo da itzulketa, baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzen duen frogagiria aurkeztu ondoren. Ez da arrazoi justifikatua izango hautagaia Mondragon Unibertsitateaz bestelako unibertsitateetako ikasketetan onartua izatea.

Eskaerak **'PLAZA ERRESERBARI UKO EGITEKO ESKAERA'** dokumentua beteta aurkeztu behar dira (ikus I. eranskina) eta onarpena.ing@mondragon.edu helbidera bidali.

A.5. Ikasgaiak aitortzea

- Indarrean dauden arauak aplikatuz, irakasgaiak aitortzea onartzeko eskatu ahal izango du, arrazoi hauengatik:
 - Aldez aurretik edozein unibertsitatetan egindako unibertsitate-ikasketa ofizialak (amaituak edo ez).
 - Aldez aurretik edozein unibertsitatetan egindako unibertsitate-ikasketa ez-ofizialak (amaitutakoak edo ez).
 - Unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketak:
 - Goi Mailako Lanbide Heziketa (Goi Mailako Heziketa Zikloak edota Espezializazio Diplomak)
 - Goi-mailako arte-irakaskuntzak
 - Goi-mailako kirol-irakaskuntzak
- Horretarako, Idazkaritza Akademikoan aurkeztu beharko du, horretarako ezarritako epean, eskaera-inprimakia, behar bezala beteta, honako hauekin batera:

Aldez aurretik unibertsitate-ikasketak egin izana egiaztatzeko.

- Ziurtagiri akademiko pertsonala (prestakuntza Goi Eskola Politeknikoan egin den kasuan ezik)
- Errekonozimenduaren jatorrizko irakasgai bakoitzaren programa, egin zen ikastetxeak zigilatua eta gainditu zen ikasturteari dagokiona.

Aldez aurretik unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketak egin izana egiaztatzeko:

- Ziurtagiri akademiko pertsonala; fotokopia konpultsatua (edo fotokopia eta jatorrizkoa, erkatzeko).

Lan- edo lanbide-esperientzia egiaztatzeagatik aitortzeko:

- Curriculum vitae-a.
- Lan Bizitza.
- Baloratu daitezkeen merezimenduen egiaztapenak.

- Ikasgaien aitortzea matrikula egin aurretik gauzatu ahal izango dira, eskatutako dokumentazioa aurtengo ekainaren 10a baino lehen aurkeztu bada. Bestela, matrikula egin ondoren aplikatuko dira. Eskaerak aurkezteko, **'IRAKASGAIK ONARTZEKO ETA-EDO BALIOZKOTZEKO ESKAERA'** dokumentua (ikus II. eranskina) bete eta idazkaritza.mgep@mondragon.edu helbidera bidali behar da.
- Ikasketak hautatu ala ez erabakitzeko aitortpenen ebazpena ezagutu nahi baduzu, aurretiazko txosten bat eskatu beharko duzu, idazkaritza.mgep@mondragon.edu helbidera mezu elektroniko bat idatziz **apirilaren 3a** baino lehen.

A.6. Bekabide

- Mondragon Unibertsitatean, Bekabide Programaren bidez, arrazoi ekonomikoengatik inork ikasteari utz ez diezaion sustatzen dugu. Azterketa pertsonalizatua egingo dugu, Mondragon Unibertsitatean ikasteak ekarriko dituen gastuak eta sarrerak kontuan hartuta, interesdunaren familiaren egoera ekonomikoa kontuan hartuta eta programaren onuretara heltzeko ezarritako irizpideak aplikatuta, ordainketak ikasleen eta haien familien aukera ekonomikoetara egokitzeko helburuarekin.
- Programa honi buruz informazio gehiago nahi baduzu, email hau erabili: bekabide.mgep@mondragon.edu
- Mondragon Unibertsitatean matrikulatutako ikasleek beste beka eta laguntza batzuen onuradun izan ahalko dira, matrikularen kostuaren zati bat konpentsatuko dietenak, baldin eta laguntza horiek arautzen dituzten deialdietan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

- Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu orri hau:
<https://www.mondragon.edu/eu/informazioa/prezioak-bekak-diru-laguntzak/bekak-diru-laguntzak>

B. Onarpen-probari buruzko informazioa

B.1. Onarpen Probarako deialdia

- Onarpen-probetako plazak mugatuak dira, eta, beraz, unibertsitateak probaren eguna, ordua eta lekua esleitu ditzake, eta informazio hori emailaz bidaliko zaizu.
- Lehen adierazi bezala, ziurtatu behar duzu inskripzioan adierazitako helbide elektronikoa zuzena dela, eta gomendatzen dizugu nahi ez duzun posta-erretilua edo spama ere berrikustea.
- Esleitu zaizun datan joaterik ez baduzu, onarpena.ing@mondragon.edu helbidean aldatzeko eskatu ahal izango duzu.
- Onarpen probak **otsailaren 1ean eta apirilaren 5ean** egingo dira.
- Epe arruntaren barruan izena eman eta ikasturte honetan Batxilergoa edo Goi Mailako Heziketa Zikloa atzerrian egiten ari diren eta egun horietan aurrez aurre joan ezin diren ikasleei beste data bat emango zaie epe arruntaren barruan, online onartzeko proba egiteko.
- Aparteko proba bat ezarriko zaie izena emateko aparteko aldian izena eman duten pertsonari, betiere plaza librerik geratzen bada.

B.2. Onarpen-probaren edukia

- Onarpen-probak bi zati ditu: batean talde-dinamika bat egiten da, eta bestean hautagaiak profilari eta motibazioari buruzko banakako test bat betetzen du.

Proba horietan, jarraian adierazten diren gaitasunak baloratuko dira;

- Ahozko komunikazioa
 - Talde-lana
 - Analisi kritikoa
 - Lankidetzatza
 - Jakin-mina eta jarrera ekintzailea
- Ez da beharrezkoa aldeztu aurretik probarako prestatzea, ez baita azterketa bat.
- Nolanahi ere, proba egin beharko duzu hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko. Azkenean matrikulatzen ez bazara, horren emaitza gehienez hiru urterako mantenduko zaizu.

C. Hautaketa-prozesua

C.1. Onarpen baldintzatua, plaza erreserbatzeko eskubidearekin

- Apirilaren 30ean jakinaraziko zaie proba espezifikoak gainditu duten ikasleei plaza erreserbatzeko aukera dutela. Hautaketa hori egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan:
 - Hautagaiak egindako Batxilergoko modalitatea. "Zientziak eta Teknologia" modalitatetik datozen hautagaiak lehentasuna izango dute gainerako batxilergoen aldean.
 - Batxilergoko ikasleen kasuan: 1. mailan lortutako eta ordura arte Batxilergoko 2. mailan lortutako kalifikazioen batez besteko nota aritmetikoa.
 - Goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleen kasuan: 1. mailan lortutako kalifikazioen batez besteko nota aritmetikoa.

C.2. Behin behineko notak aurkeztea

- **USEko notak**
 - **Ohiko deialdiko ikasleak**

Behin behineko notak

Ikasleak ekainaren 16ra arte entregatu beharko ditu selektibitatean lortutako behin-behineko notak. Adierazitako datarako behin betiko dokumentaziorik ez badu, JUPean lortutako behin-behineko kalifikazioen pantaila-irudi bat erantsi beharko du ikasleak.

Behin betiko notak

Ikasleak, USEko behin betiko kalifikazioak lortu ondoren, dokumentazio hori aurkeztu beharko du automatrikulazio-aplikazioan.

- **Ez-ohiko deialdiko ikasleak**

Behin behineko notak

Ikasleak uztailaren 10era arte entregatu beharko ditu selektibitatean lortutako behin-behineko notak. Adierazitako datarako behin betiko dokumentaziorik ez badu, JUPean lortutako behin-behineko kalifikazioen pantaila-irudi bat erantsi beharko du ikasleak.

Behin betiko notak

Ikasleak, JUPeko behin betiko kalifikazioak lortu ondoren, dokumentazio hori aurkeztu beharko du automatrikulazio-aplikazioan.

- **GMHZko notak**

Behin betiko notak

Ikasleak ekainaren 30a baino lehen entregatu beharko ditu behin betiko kalifikazioak.

- **Batxilergoa Espainiako Hezkuntza Sistematik kanpoko notak**

Behin betiko notak

Ikasleak uztailaren 18a baino lehen entregatu beharko ditu behin betiko kalifikazioak.

C.3. Onarpena

- Ohiko fasean, onartua izateko, hautagaiak plazaren erreserba egina izateaz gain, "GAI" ebaluazioa lortu beharko du proba espezifikoan. Hala egin ezean, ez onartutzat joko da ondorio guztietarako.
- Plaza erreserbatu duten hautagaiak lortutako onarpen-notaren arabera onartuko dira. Horretarako, formula hau aplikatuko da:

Notaren kalkulua:

- **USE bidez datozen ikasleentzat:**

Unibertsitatera sartzeko nota + 0,2* 1. gaiko nota + 0,2* 2. Gaiko nota

1. eta 2. ikasgaiak honako hauek izango dira:

- 1. ikasgaia Matematika II izango da batxilergoko "Zientziak eta teknologia" modalitate bidez sartzen diren ikasleentzat.
- 2. irakasgaia honako hau izango da: Euskara eta Literatura II edo Atzerriko Hizkuntza II, ikasi nahi duzun titulu eta kanpusaren arabera, ondorengo estekan dagoen taulan ikusi dezakezu:
<https://www.mondragon.edu/eu/informazioa/onarpenak/onarpen-prozedura>

- **GMHZ bidez datozen ikasleentzat:**

GMHZan lortutako bataz besteko nota

- **Batxilergoko Espainiako Hezkuntza Sistematik kanpoko ikasleentzako batez besteko notaren kalkulua:**

- UHUNeko gaitasun espezifikoaren probetako (GEP) kalifikazioa:

GEPko nota + 0,2* 1. gaiko nota + 0,2* 2. Gaiko nota

1. eta 2. ikasgaiak honako hauek izango dira:

- 1. ikasgaia Matematika II izango da batxilergoko "Zientziak eta teknologia" edo antzeko modalitate bidez sartzen diren ikasleentzat.
- 2. irakasgaia Atzerriko Hizkuntza izango da.
- UHUN-kemandako akreditazioan agertzen den kalifikazioa.



Onarpen-datak:

- USE-tik datozen ikasleak: ekainaren 20a.
 - GMHZtik datozen ikasleak: uztailaren 1a.
 - Espainiako Hezkuntza Sistematik kanpoko Batxilergoko ikasleak: ekainaren 19a.
-
- **Epe arruntean “erreserban” izena eman duten pertsonak** tituluaren hutsik dauden plaza kopuruaren arabera onartuko dira, betiere horretarako baldintzak betetzen badituzte.
 - **Epe berezian izena eman duten pertsonak** onartutako hautagaiak izango dira, tituluaren hutsik dauden plaza kopuruaren arabera.

D. Matrikulazioa

Matrikulazio datak:

- **USE bidez datozen ikasleak:**
 - Ohiko deialdiko ikasleak: Matrikula online egingo da eta matrikulazio datak ekainaren 23tik 27ra izango dira.
 - Ez-ohiko deialdiko ikasleak: Matrikula online egingo da eta matrikulazio datak uztailaren 14tik 15era izango dira.
- **GMHZ bidez datozen ikasleak:** Matrikula online egingo da eta matrikulazio datak uztailaren 1etik 4ra izango dira.
- **Batzilergoa Espainiako Hezkuntza Sistematik kanpo egin duten ikasleak:** Matrikula online egingo da eta matrikulazio datak uztailaren 21etik 22ra izango dira.
- Plaza hutsak dituzten titulazioen kasuan, matrikula-epe gehigarriak ezarriko dira.
- Email bat jasoko duzu matrikula-jarraibideekin eta automatrikula aplikazioan sartzeko jarraibideekin. Esteka honetan ere kontsulta dezakezu maiatzetik aurrera (<https://www.mondragon.edu/es/escuela-politecnica-superior/bienvenida-estudiantes>).

E. Informazioa ekonomikoa

E.1 Zenbatekoa

- 2025-26 ikasturterako matrikularen zenbatekoa **133,65 €-koa izango da kredituko** lehen aldiz matrikulatzen bazara, eta %10 gehiago izango da bigarren aldiz matrikulatzen bazara. Hirugarrenez matrikulatzen bazara, %20 gehiago ordaindu beharko duzu kredituko.
- Aurretiazko formazioagatik (unibertsitateko ikasketak eta Lanbide Heziketa) aitortutako kredituak ez dira inola ere ordaintzen. Ikasleen ordezkartzako jardueretan eta Unibertsitateak antolatutako kirol jardueretan eta abarretan parte hartzeagatik aitortutako ECTS-en kasuan, amortizatutako kreditu bakoitzeko krediturako ezarritako prezioaren %50a ordaindu beharko du ikasleak.
- Plaza-erreserbari dagokion ordainketa egin bada, dagokion zenbatekoa **hurrengo hiletako kuotetatik** deskontatuko da, aukeratutako ordainketa-moduaren arabera.

E.2 Ordaintzeko moduak

- Matrikulatzerakoan, 1.600€ ordaindu beharko dituzu. Ordainketa hori automatrikulazioko plataforman egin behar duzu, TPV ordainketa sistemaren bidez.
- Hurrengo hileko erreziboak hil bakoitzaren 20an helbideratuko dira, aukera hauen arabera:
 - Lehen ordainketa gehi [Ikasle Kontseiluko kuota (10 €) eta MGEPeke bazkide erabiltzaile kuota (6,01 €)] + gainerakoa ordainketa bakarrean (2025eko iraila)
 - Lehen ordainketa gehi [Ikasle Kontseiluko kuota (10 €) eta MGEPeke bazkide erabiltzaile kuota (6,01 €)] + gainerakoa 3 hilabeteetan (2025eko iraila, 2025eko abendua, 2026ko martxoa)
 - Lehen ordainketa gehi [Ikasle Kontseiluko kuota (10 €) eta MGEPeke bazkide erabiltzaile kuota (6,01 €)] + gainerakoa 9 hilabeteetan (2025eko iraila - 2026ko maiatza)

E.3 Matrikulan atzera egitea eta ikasketetan baja ematea

- **Matrikulan atzera egitea.**- Matrikula formalizatu ondoren, 14 egun naturaleko epea izango duzu matrikularen kontratua sinatzen denetik kontratuan atzera egiteko, eta ez zaizu inolako atxikipen edo errekarigurik aplikatuko aldezturik aurretik suntsiarazteagatik. '**MATRIKULARI UKO EGITEKO ESKAERA**' dokumentua bete eta idezkaritza.mgep@mondragon.edu helbidera bidali. (ikus III. eranskina)
- **Ikasketetan baja emateko prozesua.**- Matrikularen lehen ordainketa egin ondoren baja ematen baduzu eta atzera egiteko epea amaitu bada, lehen ordainketaren zenbateko osoa atxikiko zaizu. Ondorengo hilekoei dagokienez, baja eman eta hurrengo hilean eteten da fakturazioa. Ondorio akademikoetarako, ikasleak urtebeteko matrikula agortzen du ikasketetan.

E.4 MGEPeke bazkide erabiltzailearen izaera

- MGEPen lehen aldiz edozein mailatan (LH, gradua eta masterra) matrikulatutako ikasleak Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, JMA, S. Coop. kooperatibako bazkide erabiltzaileak izaera hartzen dute. Horregatik, eta indarrean dagoen legediak adierazten duen bezala, ikaslearen nahitaezko ekarpenaren 6,01 euroko kuota ordaindu behar dute. MGEPeke bazkide erabiltzaile izaera iraileko Kontseilu Errektorean berretsiko da eta e-mailez jakinaraziko zaio ikasleari.
- Ikasketak amaitzen dituzunean, egindako ekarpena itzultzeko eskatu dezakezu, idatzi bat posta elektronikoko helbide honetara bidaliz: idezkaritza.mgep@mondragon.edu
- Erakundean baja zarenean, egindako ekarpena itzultzeko eskatzeko, '**BAJA ESKAERA**' dokumentua bete eta idezkaritza.mgep@mondragon.edu helbidera bidali behar duzu. (ikus IV. eranskina)
- Ikasketak amaitu edo erakundean baja izan eta hurrengo bost urteen barruan egin ahal izango duzu eskaera.
- **Ikasle Kontseiluko kuota:** Adierazi bezala, ikasleak Kooperatibako bazkide erabiltzaileak dira, eta haren Kudeaketa Organoetan dute ordezkarietza. Ordezkaritza foro propioa ere badute, Ikasleen Kontseilua, titulu-ikasmaila-talde bakoitzeko ordezkariak eta ordezkariordeak osatua. Ikasleen Kontseilu honek urteko kuota bat ezartzen du bere gastuei aurre egiteko. Matrikularen prezio osoan ez dago sartuta Ikasleen Kontseiluaren kuota hori. Organo horrek finkatzen duen kuota faktura bakarrean kobratuko da matrikularen lehen ordainketarekin batera irailean.



F. Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia (BIN)-en ostatu

- Ikasketetan izena ematean Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusian ostatu hartzeko interesa erakutsi zenutenok ondorengo estekan aurkituko duzue bertan izena emateko eta matrikulatzeko prozesuari buruko informazio gehigarria:

<https://www.mondragon.edu/eu/ostatua/pedro-biteri-arana-ikastetxe-nagusia/prezioak-izen-ematea-matrikula>



Mondragon
Unibertsitatea

Goi Eskola
Politeknikoa

Izen emate-onarpen prozesuaren jarraibideak
GRADUKO IKASLE BERRIAK
2024-25 Ikasturtea

<https://www.mondragon.edu/eu/ostatua/pedro-biteri-arana-ikastetxe-nagusia/prezioak-izen-ematea-matrikula>

G. Eranskinak



G.1 ERANSKINA I: PLAZA ERRESERBATI UKO EGITEKO ESKAERA



PLAZA ERRESERBARI UKO EGITEKO ESKAERA

Dokumentu honen bidez jakinarazten dut UKO EGIN nahi diodala hurrengoko titulazioko plaza-erreserbari:

TITULAZIOA: _____

NORK AURKEZTUA: _____

NAN: _____

ERRESERBA DATA: _____

_____ (n), ____ko _____ren _____ an .

Sinadura:

Kontsumitzaileak eskubidea du 14 egun naturaleko epean kontratuan atzera egiteko, justifikatu beharrik gabe, *Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikuluen arabera.*

Atzera egiteko epea betetzeko, nahikoa da kontsumitzaileak eskubide hori baliatzeari buruzko jakinarazpena dagokion epea amaitu baino lehen bidaltzea.



G.2 ERANSKINA II: IRAKASGAIAK ONARTZEKO ETA-EDO BALIOZKOTZEKO ESKAERA

ABIZENAK:			IZENA:		
NAN/Pasaportea:		TELF.		E-MAIL:	
HELBIDEA:				ZBK:	SOLAIRUA:
HERRIA:			PROBINTZIA:		POSTA-KODEA:

JATORRIZKO UNIBERTSITATEA:

JATORRIZKO TITULAZIOA:

MGEP-EKO TITULAZIOA:

[illegible]



.....(e)n,ko ren.....an

Sinadura:

ESKAERA HONEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- A) Ziurtagiri akademikoa originala edo fotokopia konpultsatua, adierazten diren egindako eta gainditutako unibertsitate-ikasketen aitorpena eta/edo baliozkotzea egiaztatzeko. Ikasketa horiek antolatzen dituen zentroak emandako ziurtagiri horretan, egindako eta gainditutako ikasgaien zerrendaz gain, honako hauek ere adierazi beharko dira: titulu ofizialaren izena, dagokion ikasketa-planaren erreferentzia (Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eguna) eta interesdunak onarpen-prozesuan ikasketa eta zentro horietan sartzeko izan zuen kalifikazioa.
- B) Gainditu ziren urtean indarrean zeuden irakasgaien programak, edukia adieraziz.
- C) Atzerriko ikasketak dituzten ikasleen kasuan, aurkeztutako ziurtagiri akademikoek ofizialak izan beharko dute, kasuan kasuko herrialdeko ordenamendu juridikoaren arabera horretarako eskumena duten agintariak emandakoak, eta bide diplomatikoaren bidez legeztatuak, edo, hala badagokio, Hagako Hitzarmenaren oharren bidez. Betekizun hori ez zaie eskatuko Europar Batasuneko estatu kideetako agintariak edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioa sinatu dutenek emandako dokumentuei.



G.3 ERANSKINA III: MATRIKULARI UKO EGITEKO ESKAERA



MATRIKULARI UKO EGITEKO ESKAERA

Dokumentu honen bidez jakinarazten dut UKO EGIN nahi diodala hurrengoko titulazioko matrikulari:

TITULAZIOA: _____

NORK AURKEZTUA: _____

NAN: _____

ERRESERBA DATA: _____

_____ (n), ____ko _____ren _____ an .

Sinadura:

Kontsumitzaileak eskubidea du 14 egun naturaleko epean kontratuan atzera egiteko, justifikatu beharrik gabe, *Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikularen arabera.*

Atzera egiteko epea betetzeko, nahikoa da kontsumitzaileak eskubide hori baliatzeari buruzko jakinarazpena dagokion epea amaitu baino lehen bidaltzea.



G.4 ERANSKINA IV: BAJA EDO BALIOGABETZE ESKAERA



BAJA EDO BALIOGABETZE ESKAERA

_____ -K AURKEZTUA

KURTSOA _____

BAJAREN DATA _____

ZERGATIA: X batez markatu ikasketak uztera eraman zaituen arrazoia(k)

☐

Ikasketak oso zailak egiten zaizkit.

☐

Beste titulu batek gehiago erakartzen nau.

☐

Zaila egiten zait klaseak euskaraz jarraitzea.

☐

Osasun arazoak ditut eta ezin dut erritmoa jarraitu.

☐

Ikasketaz kanpoko arazoak ditut.

☐

Ikasketak oso garestiak dira eta ez daukat inolako laguntzarik.

☐

Kanpusera joan- etorriak egiteko arazoak ditut.

☐

Tituluak ez ditu nire espektatibak bete (ez da izan esperotakoa).

☐

Beste bat _____

☐

Halaber eskatzen du, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, José M^a Arizmendiarrieta, S. Coop.-eko bazkide erabiltzaile gisa egindako hasierako nahitaezko ekarpena bueltatzea.

Arrasaten, 20_ ko _____ k _____ a

Sinadura